

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

225/2020 Foru Agindua, irailaren 30ekoa. Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatzea Zigoitiko udalerriko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Muruko 6 zenbakiko egikaritze unitateko Hitzarmen Batzarrean egindako aldaketak (helbide aldaketa eta Zuzendaritza Kontseiluko karguak berritzea)

Lehenengoa. Zigoitiko udal planeamenduko arau subsidiarioetako Muruko 6 zenbakiko egikaritze unitatearen Hitzarmen Batzarrak, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean 2020ko uztailaren 9an sarrera izan zuen idazki baten bidez, Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroari eskaera bat helarazi zion batzar horren helbide eta karguen datuak aldatzeko, harekin batera aurkeztutako ziurtagiriaren arabera.

Uztailaren 15ean, Hirigintzako Planeamendu, Kudeaketa eta Diziplina Atalak eskatzaileari jakinarazi zion ezen, Hirigintza Kudeatzeko Arautegia onesten duen 3288/1978 Errege Dekretuaren 164. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, Hitzarmen Batzarreko datuak aldatzeko eskaera Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroa eraman behar dela, Zigoitiko Udalaren bitartez.

Bigarrena. Zigoitiko Udalak, 2020ko irailaren 15eko sarrera datarekin, alkatearen irailaren 3ko 355 zenbakiko Ebazpenaren ziurtagiria bidali zuen, zeinaren bidez onesten baita Muruko 6 zenbakiko egikaritze unitateko Hitzarmen Batzarrean Zuzendaritza Kontseiluko karguak berritzea, batzarrak 2020ko ekainaren 29ko bilkuran erabakitakoari jarraituz, bai eta berritzearen eta helbide aldaketaren berri ematea ere Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroari, inskribatu beharrekoa inskriba zezaten. Batzarrak erabakitakoaren ziurtagiria erantsi du, non lehendakari eta idazkari karguak beteko dituzten pertsonak izendatzen baitira eta helbide berria jasotzen baita.

Hirugarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren uztailaren 28ko 339/2014 Foru Aginduaz baliatuz, Zigoitiko planeamenduko arau subsidiarioetako Muruko 6 zenbakiko egikaritze unitateko Hitzarmen Batzarra Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatu zen.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Hirigintza Kudeaketako Arautegia onesten duen Errege Dekretuak (3288/1978 Errege Dekretua, abuztuaren 25ekoa), 164. artikuluan, hau xedatzen du: "Konpentsazio Batzarretan gertatzen diren gorabeherak, hala nola zuzendaritza organoko kideen aldaketak, urbanizatzeko enpresen eransketa eta Batzarrean edo bere zuzendaritza organoen osakeran eragina duen beste edozein, hirigintza entitate laguntzaileen erregistroari jakinaraziko zaizkio, diharduen administrazioaren bitartez."

Zigoitiko Udalak Muruko 6 zenbakiko egikaritze unitateko Hitzarmen Batzarrean eginiko aldaketei buruzko ebazpenaren ziurtagiria bidali du. Aldaketa horiek batzarrak 2020ko ekainaren 29ko eginiko bilkuran erabaki ziren.

Bigarrena. Aplikagarria da Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 56/2011 Foru Dekretuan aurreikusitakoa (Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroa sortu eta arautzen du).

Hirugarrena. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak txosten arrazoitua aurkeztu du, eta jakinarazitako aldaketak Erregistroan inskribatzea proposatu du.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agintzea Arabako Hirigintza Intereseko Elkarleen Erregistroan inskribatu dadila Zigoitiko udalerriko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Muruko 6 zenbakiko egikaritze unitateko Hitzarmen Batzarrean egindako aldaketa; hain zuzen ere, erakunde horren helbidea Vitoria-Gasteizen (PK: 01005) dagoen San Prudenziokaleko 27 zenbakiko 4. solairura (7. bulegoa) aldatzea.

Bigarrena. Agintzea Arabako Hirigintza Intereseko Elkarleen Erregistroan inskribatu dadila Zigoitiko udalerriko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Muruko 6 zenbakiko egikaritze unitateko Hitzarmen Batzarrean egindako aldaketa; hain zuzen ere, Zuzendaritza Kontseiluko karguak berritzea, hara:

Lehendakaria: Iñaki Rodrigo Echevarriarteun.

Idazkaria: Rafael Bárbara Gutiérrez.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Horrez gain, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa aurkez dakiok ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera, edo egoki jotzen den beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 30a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO